

## V - BESTELAKOAK

**SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDAL HIRIGINTZA ELKARTEA ENSANCHE 21 ZABALGUNEA, SA**

**Vitoria-Gasteizko Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Sozietatearen plantilla hutsik dauden lan-kontratudun langileen zenbait lanpostu lehiaketa bidez betetzeko oinarriak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean**

**Lehena. Arau orokorrak**

## 1.1. Xedea.

Deialdi honen xedea da l. eranskinean zerrendatzen diren lan-kontratudun langileen lanpostuak txanda irekiko lehiaketa-sistemaren bidez betetzea, 21 Zabalgunea SA sozietatearen administrazio kontseiluak 2022ko maiatzaren 16an onetsitako enplegu-eskaintzarekin bat etorriz (2022ko maiatzaren 27ko ALHAO, 61. zk.).

Deialdi hau egonkortzeko hautaketa-prozesua da, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak ezartzen duen aparteko prozeduraren barruan.

21 Zabalgunea SA sozietateak abenduaren 28ko 20/2021 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz egiten du deialdi hau. Izan ere, legearen aplikazio-eremuak "merkataritza-sozietate publikoak, enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta sektore publikoko baltzuak" barne hartzen ditu, "hargatik eragotzi gabe haien araudi espezifikora egokitzea, hala badagokio".

Egonkortzeko enplegu eskaintzari dagokion merezimendu-lehiaketaren bidezko hautaketa-prozesua alderdi hauek betetzen direla bermatuz egin behar da: berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak; deialdien eta horien oinarrien publikitatea; hautaketa-organoen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa-prozesuen edukiaren eta garatu beharreko funtzio edo zereginen arteko egokitzapena, eta hautaketa-prozesuetan bizkortasuna, objektibotasunari kalterik egin gabe.

## 1.2. Aplikagarri den legedia.

Testu hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira oinarriok: enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea, 21 Zabalgunea Gasteizko udal hirigintza elkartearen estatutu sozialak, langileen estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretutik aplikagarri diren aginduak, eta sozietatearen hitzarmen kolektiboa.

Halaber, deialdi honek kontuan hartzen du emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa enpleguari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 14. artikularekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriz.

Oinarri hauek lotesleak izango dira 21 Zabalgunea SA sozietatearentzat, merezimenduak baloratu behar dituzten epaimahaientzat eta merezimendu-lehiaketan parte hartzen dutenentzat.

### 1.3. Hautaketa sistema.

21 Zabalgunearen hitzarmen kolektiboaren 86. artikuluan eta abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ebazpen honen I. eranskinean jasotako lanpostuak betetzeko hautaketa-sistema merezimendu-lehiaketa izango da.

### 1.4. Lan-poltsak.

Hautaketa-prozesu hau salbuespenezkoa denez, ez du aldi baterako lan-poltsarik sortuko.

### **Bigarrena. Publizitatea**

Deialdia eta oinarri hauek dagozkien aldizkari ofizialetan eta 21 Zabalgunea SAren web-orrian argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuan zehar, prozesuaren garapenarekin zerikusia duen informazio guztia 21 Zabalgunea SAren web-orrian argitaratuko da.

### **Hirugarrena. Hautagaien betekizunak**

3.1. Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Espainiar nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko kide den edozein estatutakoa nahiz Europar Batasunarekin sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa, Europako Komunitatea Eratzeko Itunean zehaztua dagoen moduan.

b) Sartu nahi den eskala edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

d) Diziplina-espeditate bidez edozein administrazio publiko edo organismo edo enpresa publikoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutua edo berezia ez izatea.

e) II. eranskinean lanpostuen sailkapenaren arabera eskatzen den titulazioa edukitzea, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta izatea.

3.2. Lanpostuak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokor eta espezifikotan aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta betetzen jarraitu beharko dute kontratazio-egunean.

### **Laugarrena. Eskabideak aurkeztea**

4.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak (IV. eranskina) sozietatearen administrazio kontseiluko lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta bertan adieraziko da hirugarren oinarrian ezartzen diren betekizun guztiak betetzen dituztela; Zabalgunea 21 SAren erregistroan aurkeztuko dira (Zulueta jauregia, Senda ibilbidea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz).

4.2. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun balioduneko izango da, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

4.3. Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

- NANaren fotokopia.
- Eskatutako titulazioaren fotokopia.
- Lehiaketan baloratu beharreko merezimenduen fotokopia.

4.4. Une horretan eta oinarri hauetan zehaztutako moduan dokumentatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko.

4.5. Eskabidean atzematen diren akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizios edo interesdunak eskatuta.

4.6. Datuen babesa: informazioa tratatzerakoan kontuan hartuko da datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/ 2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan —datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa— xedatutakoa, baita aplikatu beharreko gainerako xedapenak ere. Izangaiek emandako datuak 21 Zabalgunea SAk tratatuko ditu, arduradun gisa, sozietaterako langileak hautatzeko xedez.

Era berean, hautaketa-prozesutik eratorzen diren eta datu pertsonalak dituzten izapide-egintzei dagokionez, parte hartzeko eskabidea sinatzen dutelarik, izangaiek baimena ematen dute 21 Zabalguneak bere web-orrian edo horretarako ezarritako beste edozein gunetan argitara ditzan datuok.

4.7. Parte-hartzaileak lotuta geratuko dira erregistroan aurkeztutako eskabidean jaso dituzten datuei, eta eskabideak aurkezteko epean baino ezingo dira aldatu, aldaketaren arrazoiak azaltzen dituen idazki baten bidez.

#### **Bosgarrena. Izangaiek onartzea**

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, administrazio kontseiluko lehendakariak ebazpena emango du, onartutakoan eta bazter utzitakoan zerrenda onesteko. Zerrenda hori ALHAOn eta 21 Zabalgunearen webgunean argitaratuko da.

5.2. Berariaz baztertutako izangaiek, baita onartutakoan eta baztertutakoan zerrendetan ez daudenez ere, 10 egun balioduneko epea izango dute baztertzea edo berariaz ez sartzea eragin duen akatsa zuzentzeko, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.3. Epe hori amaitutakoan, behin betiko zerrenda argitaratuko da, hasierako zerrendak argitaratu ziren leku berberetan.

5.4. Zerrendetan hautagaien izen-abizenak eta nortasun-agiriaren zenbakia agertuko dira, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoiak.

5.5. Emaitzen behin betiko erabakiaren aurrean, izangaiek alegazioak aurkeztu ahalko dituzte, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### **Seigarrena. Epaimahaia**

6.1. Bost kidek osatuko dute epaimahaia: horietako batek lehendakari jardungo du, beste batek idazkari, eta gainerakoek mahaikide, dagozkien ordezkoeekin. Horietako bat langileen ordezkariak proposatuko dute, sozietateko langileen artean. Kide guztiek izango dute ahotsa eta botoa.

6.2. Epaimahaiaren osaera orekatua izan behar da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada (sexu bakoitzak gutxienez ehun 40ko ordezkari izan behar du).

6.3. Kontseilua balio osoz era dadin, ezinbestekoa izango lehendakaria eta idazkaria —edo haien ordezkoiak— bertan izatea, baita gutxienez kideen erdiak ere —titularrak nahiz ordezkoiak—.

6.4. Epaimahai kalifikatzaileko kideek konfidentzialtasuna eta isiltasun profesionala zainduko dute bileretan landutako gaiei dagokien orotan, eta ezin izango dute bilera horietatik kanpo erabili izendatuak izan diren hautaketa-prozesuarekin lotuta batzordeko kide gisa lortzen duten informazioa.

**Zazpigarrena. Hautaketa-prozesua**

Deialdiaren barruko lanpostu guztiak betetzeko sistema lehiaketa izango da.

III. eranskinean deialdiko plaza bakoitzerako zerrendatzen diren merezimenduak baloratuko dira lehiaketan, horietako bakoitzerako zehazten den baremoaren arabera.

Merezimenduak laugarren oinarrian ezarritako moduan aurkeztu eta egiaztatu beharko dira. Epaimahaiak hautaketa-prozesuaren edozein unetan eskatu ahalko die hautagaiei baloratu diren zirkunstantziak eta agiriak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Baldin eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatzen badu hautagairen batek iruzurrezko jarduerarik egin duela edo bere eskabidean faltsukeria nabarmena egin duela, eta horrek lehia desleiala eragiten badu, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, interesdunari entzun ondoren, hautaketa-prozesutik kanpo uzteko proposamen arrazoitua egin beharko dio onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartu duen organoari, eta izangaia egindako faltsutzeen edo iruzurrezko jarduketan berri eman. Organo horren ebazpenaren aurka dagozkion erreklamazioak aurkeztu ahalko dira.

**Zortzigarrena. Kalifikazioak**

Azken kalifikazioa lehiaketaren baremoko ataletan lortutako puntuazioen batura izango da, eta puntuazio horrek zehaztuko du prozedura espezifiko bakoitzean gainditu dutenen ordena.

Berdinketarik gertatuz gero, eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aparteko prozesuaren helburua kontuan hartuta, honako hauek hartuko dira kontuan ebazteko: lehenik, deialdia egin duen sozietatean deialdiaren kategoria berean zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde; bigarrenik, deialdia egin duen sozietatean beste kategoria batean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko edo beste erakunde edo sozietate publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketa-sistemara joko da.

**Bederatzigarrena. Gainditu dutenen zerrenda**

Izangaien kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du 21 Zabalgunearen web-orrian, puntuazioaren arabera.

Epaimahai kalifikatzaileak gainditutzat jotzen dituen —eta halakotzat adierazten dituen— izangaien kopurua ezingo izan deialdiko plaza-kopurua baino handiagoa. Aurretik adierazitakoaren aurka doan edozein proposamen erabat deuseza izango da.

**Hamargarrena. Agiriak aurkeztea**

Aipatutako proposamena jaso ondoren, izangaiei hamar egun balioduneko epea emango zaie honako agiri hauek aurkezteko deialdia egin duen sozietatean:

- a) Nortasun-agiriaren kopia.
- b) Deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen den tituluaren kopia.
- c) Izangaiaren zinpeko aitorpena edo hitzematea, adieraziz ez dagoela eginkizun publikoak betetzeko desgaituta edo kargutik kendua, eta ez dela inongo administrazio publiko nahiz erakunde edo sozietate publikoren zerbitzutik bereizia izan.
- d) Txosten medikoa, eredu ofizialean egina, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek kontratatuak izateko eskubidea galduko dute, ezinbesteko kasuetan izan ezik; berdin jokatuko da dokumentazio hori aztertu eta eskatutako betekizunen bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada.

Deialdia egiten duen sozietatean lanposturen bat betetzen ari diren izangaiek ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, dagoeneko sozietatearen esku dagoelako.

**Hamaikagarrena. Lan-kontratudun langile finko izendatzea**

Agiriak aurkezteko epea igarotakoan, administrazio kontseiluko lehendakariak ebatziko du hautaketa-prozesua gainditu eta deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituzten pertsonak lan-kontratudun langile finko izendatzea.

Izendapenak probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko dira.

Arazoi justifikaturik gabe bere izendapenaz jabetzera joaten ez den izangaiak galdu egingo du eskuratu duen eskubide oro, eta azken kalifikazioaren puntuazio-hurrenkeraren arabera hurrengo den izangaiari deitu ahalko zaio.

Izendatutako pertsonak gehienez hiru egun naturaleko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta horrek ez badakar enpleguaren bizilekua aldatzea, edo hilabeteko epean, bizilekua aldatzea edo zerbitzu aktibora itzultzea badakar.

Interesdunei baimenik edo lizentziarik eman bazaie, hori amaitzen denean hasiko dira zenbatzen lanpostuaz jabetzeko epeak, deialdia egin duen organoak, baimen edo lizentzia horien gozamina etetea erabaki ezean, justifikatutako arrazoiengatik.

Lanpostuaz jabetu ondoren, lanpostuaz jabetzeko epea jarduneko zerbitzutzat hartuko da ondorio guztietarako, salbu eta borondatezko eszedentziatik edo seme-alabak zaintzeko eszedentziatik lehenengo urtea igaro ondoren lanera itzultzen bada.

**Hamabigarrena. Gorabeherak eta aurkaratzeak**

Oinarri hauetan jaso gabekoei dagokienez, epaimahaiaren esku geratuko da argitu behar-koak argitzea eta deialdia behar bezala bideratzeko hartu beharreko erabakiak hartzea.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta deialdi honetatik eta epaimahaiaren jarduketetatik eratorritako egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte jurisdikzio eskudunaren aurrean, legez ezarritako kasuetan eta moduan.

21 Zabalgunea SAren administrazio kontseiluak 2022ko azaroaren 23an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren oinarriak eta deialdia.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 23a

*Lehendakaria*

**ANA OREGI BASTARRIKA**

**I. Eranskina**

Lan-Kontratudun langile finkoak

LANPOSTUAREN IZENA	TALDEA	LANPOSTU HUTSAK	HAUTAKETA SISTEMA
Kudeaketa teknikaria	B	1	Lehiaketa
Administraria	C	4	Lehiaketa

Hauek dira deialdian sartutako lanpostuak:

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriak eskatzen duen bezala, deialdiaren barruko lanpostuetan 2.1 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten langileak ari dira, eta lanpostuak 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako eta etenik gabe egon dira beteta.

21 Zabalgunea SA sozietatearen hitzarmen kolektiboaren 59. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera talde bakoitzari dagozkion ordainsariak dituzte lanpostuek.

**II. Eranskina**  
**Eskatzen diren titulazioak**

LANPOSTUAREN IZENA	TALDEA	ESKATZEN DEN TITULAZIOA
Kudeaketa teknikaria	B	Titulu hauetakoren bat izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean titulua lortzeko moduan egotea: ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa, hirugarren mailako lanbide heziketa edo legez onartutako baliokidea
Administraria	C	Titulu hauetakoren bat izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean titulua lortzeko moduan egotea: batxilergoa, bigarren mailako lanbide heziketa, edo legez onartutako baliokidea

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, tituluaren kopia soiluz gain, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da, epaimahaiak hala eskatzen badu.

**III. Eranskina**  
**Baloratu beharreko merezimenduak eta baremoa**

A. Kudeaketa teknikariaren lanpostua B. taldea.

Egonkortze-prozesua, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera: sistema merezimenduak baloratzeko lehiaketa izango da, eta guztira 100 puntu emango dira. Honela baloratuko da:

A.1. Esperientzia profesionala.

Esperientzia profesionala gehienez 75 punturekin baloratuko da:

I. Berariaz, hurrengo atalean aipatutako esperientzia orokorretik bereizita eta haren osagarri, 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Sozietatean deialdian sartutako kudeaketa-teknikariaren lanpostuan lan-kontratudun langile gisa emandako zerbitzuengatik, 45 puntu gehienez, 0,00822 puntu kontratuko egun bakoitzeko (15 urte).

II. Administrazio publikoetan nahiz erakunde edo sozietate publikoetan kudeaketa-teknikariaren kategoria profesionalean bitarteko funtzionario gisa edo lan-kontratudun langile gisa emandako zerbitzuengatik, 30 puntu gehienez, 0,00548 puntu kontratuko egun bakoitzeko (15 urte).

II. puntuko merezimenduak egiaztatzeko, egindako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko da, zerbitzuak eman diren administrazio, erakunde edo sozietate publikoak emandakoa.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko aldiak bakarrik hartuko dira aintzat.

A.2 . Beste merezimenduak batzuk.

Merezimendu hauengatik gehienez 25 puntu emango dira:

I. Gasteizko Udalean aurretik kudeaketa-teknikariaren kategoriarako hautaketa-prozesu bat gainditu izana: 25 puntu gehienez.

II. Deialdiko lanposturako eskatzen den titulazioa baino goragokoa den edo maila berekoa den beste bat izatea: 10 puntu gehienez.

III. Euskara: 15 puntu gehienez.

– B1 5 puntu.

– B2 10 puntu.

– C1 15 puntu.

IV. Beste hizkuntza batzuk: 5 puntu gehienez.

– B1 2 puntu.

– B2 3 puntu.

– C1 4 puntu.

– C2 5 puntu.

V. Informatika-ezagutzak: 10 puntu gehienez (2,5 puntu IT txartel bakoitzeko).

B. Administralari lanpostuak. C taldea.

Egonkortze-prozesua, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera: sistema merezimenduak baloratzeko lehiaketa izango da, eta guztira 100 puntu emango dira. Honela baloratuko da:

B.1. Lan esperientzia.

Esperientzia profesionala gehienez 75 punturekin baloratuko da:

I. Berariaz, hurrengo atalean aipatutako esperientzia orokorretik bereizita eta haren osagarri, 21 Zabalgunea Udal Hirigintza Sozietatean deialdian sartutako administralari lanpostuan lan-kontratudun langile gisa emandako zerbitzuengatik, 45 puntu gehienez, 0,00822 puntu kontratuko egun bakoitzeko (15 urte).

II. Administrazio publikoetan nahiz erakunde edo sozietate publikoetan administralariaren kategoria profesionalean bitarteko funtzionario gisa edo lan-kontratudun langile gisa emandako zerbitzuengatik, 30 puntu gehienez, 0,00548 puntu kontratuko egun bakoitzeko (15 urte).

II. puntuko merezimenduak egiaztatzeko, egindako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko da, zerbitzuak eman diren administrazio, erakunde edo sozietate publikoak emandakoa.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko aldiak bakarrik hartuko dira aintzat.

B.2. Beste merezimendu batzuk.

Merezimendu hauengatik gehienez 25 puntu emango dira:

I. Gasteizko Udalean aurretik administralari kategoriarako hautaketa-prozesu bat gainditu izana: 25 puntu gehienez.

II. Deialdiko lanposturako eskatzen den titulazioa baino goragokoa den edo maila berekoa den beste bat izatea: 10 puntu gehienez.

III. Euskara: 15 puntu gehienez.

a. B1 5 puntu.

b. B2 10 puntu.

c. C1 15 puntu.

IV. Beste hizkuntza batzuk: 5 puntu gehienez.

a. B1 2 puntu.

b. B2 3 puntu.

c. C1 4 puntu.

d. C2 5 puntu.

V. Informatika-ezagutzak: 10 puntu gehienez (2,5 puntu IT txartel bakoitzeko).

VI. Kontratazio publikoari eta dosierak kontratazio publikoaren plataforman izapidetzeari buruzko ikastaroak: 5 puntu gehienez.

#### IV. Eranskina Hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskabidea

<b>IZENA</b>	<b>DEITURAK</b>	
<b>NAN</b>	<b>HELBIDEA</b>	
<b>HERRIA</b>	<b>PROBINTZIA</b>	<b>TELEFONOA</b>
<b>E-POSTA</b>		

Adierazten du

Parte hartu nahi duela 21 Zabalgunea SA Gasteizko udal hirigintza sozietateak egin duen deialdian, lanpostu huts batzuk lehiaketa bidez betetzeko, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren babesean. Deialdiaren oinarriak dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu dira.

Oinarriek ..... lanposturako eskatzen dituzten betekizun guzti-guztiak betetzen dituela; horretaz gain, berariaz adierazten du:

1. Lanpostuari datxezkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala duela.
2. Ez dutela inongo administrazio, erakunde edo sozietate publikoren zerbitzutik bereizi, eta ez dagoela desgaituta funtzio publikoak betetzeko.
3. Ez dagoela ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean sartuta administrazio publikoan zerbitzuak emateko.



Eskatzen du

Dagozkion hautatze-probak egiteko onar dezaten, eta, horretarako, agiri hauek aurkezten ditu:

1. NANaren edo hori legez ordeztu duen agiriaren fotokopia.
2. Oinarrietan eskatutako tituluaren fotokopia.
3. Lehiaketa fasean barematu beharreko merezimenduen fotokopia.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko .....-(e) an.

Sin.: .....